



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Prentsa zerbitzua

EZKURDIN JARRIKO DEN STAND INFORMATZAILE BATEK ERRETZEARI UZTERA ANIMATUKO DU TABAKORIK GABEKO EGUNEAN

Stand hau Ezkurdin egongo da 16:00etatik 19:00ak arte. Tarte horretan tabakoa uzteko burutzen diren ikastaroei buruzko informazioa eskainiko da.

2012an zehar, Drogomenpekotasunen Prebentzio Zerbitzuak erretzeari uzteko bi kurtso eskaini ditu. Horietan 36 pertsonak hartu dute parte.

Urte honetan, zerbitzuak hainbat ekintza antolatu ditu, ikasleei eta eskualdeko biztanleei zuzenduta. Horien artean tabako, alkohola eta beste drogen kontsumoa prebenitzeko hitzaldiak eta tailerrak egon dira; alkoholemia-kontrolak egin dira herriko jaietan, eta guraso, irakasle eta Udaltzaingolari formakuntza eskaini zaie.

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren Drogomenpekotasunen Prebentzio zerbitzuak stand informatzaile bat jarriko du ostegun honetan, maiatzaren 31an. Helburua, Tabakorik gabeko eguna aprobetxatuz, jendeari erretzeari uztera animatzea da. 16:00etik 19:00ak arte Ezkurdiko Plazan egongo da, Durangon (Amankomunazgoan biztanle gehien dituen herriak). Tarte horretan tabakoa uzteko burutzen diren ikastaroei buruzko informazioa eskainiko da, eta interesatuek izena emateko aukera izango dute. Horrekin batera, txokolatinak, globoak, gozokiak eta piruletak banatuko dira. Zerbitzuari buruzko triptiko informatzaileak ere emango dira.

2012an zehar, Drogomenpekotasunen Prebentzio Zerbitzuak erretzeari uzteko bi kurtso eskaini ditu. Horietan 36 pertsonak hartu dute parte, guztiek ohiko erretzaileak:

gehienek (%73,08) 10 eta 20 zigarro bitartean egunean; %19,23 21 eta 40 zigarro bitartean eta %7,69 10 baino gutxiago.

Kurtsoa bukatu ostean, ordea, parte hartzaileen %85ak erretzeari utzi dio, eta beste %15ak bere kontsumoa murriztea lortu du. Gainera, tabakoa utzi duten guztiek hurrengo 6 hilabeteetan ez dutela erreko baieztatu dute.

Beste aldetik, parte hartzaileen %11k tabakoa murrizte-metodoaren bidez uztea lortu du, gainontzeko tratamendurik erabili barik. Besteek tratamendu osagarriren bat erabili behar izan dute.

EKINTZA GEHIAGO

Erretzeari uzteko ikastoroak aparte, drogomenpekotasun zerbitzuak beste ekimen batzuk jarri ditu martxan, ikasleei eta eskualdeko biztanleei zuzenduta.

Ikasleen kasuan, hurrengo ekintzak burutu dira:

- *Tabako tailerra*: 9 ikastetxek hartu zuten parte (Lehen Hezkuntzako 291 ikasle);
- *Tabako hitzaldia eta alkohol tailerra*: 9 ikastetxek hartu zuten parte (Bigarren Hezkuntzako 898 ikasle);
- *Baloreetan heziketa*: 4 ikastetxe (D.L.H.ko 519 ikasle);
- *Heziketa afektibo-sexuala*: Lehen Hezkuntzako 5 ikastetxe (336 ikasle) eta Bigarren Hezkuntzako 9 (1.282 ikasle);
- *Emozioak hezitzea*: D.L.H.ko 3 ikastetxe (201 ikasle) eta D.B.H.ko 8 ikastetxe (441 ikasle);
- *Kannabis eta beste droga batzuen kontsumoaren prebentzioa*: D.B.H.ko, Batxillergoko eta Lanbide Heziketako 10 ikastetxetan (902 ikasle)
- *Alkoholaren arriskua*: ikastetxe bat (28 ikasle);
- *Arriskuan dauden gazteen gurasoen prestakuntza*: Bi sesioko bi kurtso burutu dira bi ikastetxe desberdinetan. Beste ikastetxe baten hitzaldi bat eskaini da.

Gainera, 18 elkarrizketa indibidualak egin ziren arazo zehatzei buruz hitz egiteko.

Eskualdeko mailan, hurrengo ekintzak antolatu dira:

- *Aita eta amen prestakuntza*: 6 gai desberdin eskaini dira Amankomunazgoaren udalerrri guztiei eta Aita eta Amen Eskola 12 egin dira. Hauetan 138 gurasok hartu dute parte.
- *Alkoholemia kontrolak herriko jaietan*: Mota honetako kontrol bat egin da (Matienako jaietan) eta beste bi egitea aurreikusita dago (Iurreta eta Durangon). Ekintza honen bidez stand bat jartzen da, eta bertan kantitatezko kontrolak egiten dira eta substantzia, ondorioak eta eliminazio-denborari buruzko informazioa eskaintzen da. Matienan, 17 eta 59 urte bitarteko 229 pertsoneri egin zitzaien froga.
- *Dokumentazio eta aholkularitza zentroa drogomenpekotasunean. Beste programekin koordinazioa eta pertsonal teknikoaren formakuntza*: Ekintza honen bitartez tabako, alkohol eta beste drogek sortutako arazoei buruzko arreta pertsonala eta telefonikoa eskaintzen da, aholkuak emateko, zalantzak argitzeko eta laguntza jasotzeko. Gainera, drogomenpekotasun eta heziketari buruzko material bibliografiko eta ikus-entzunekoa eman da, eta Udaltzaingoari alkohol eta drogei buruzko formazioa eskaini zaie.
- *Ohitura kentzeko kurtsoak*: Erretzeari uzteko bi kurtso ospatu dira, eta irailean psikofarmakoak denbora luzez kontsumitzen dituzten emakumeentzako mendekotasuna gainditzeko ikastaroa hasiko da.